

MENDEKOEN KIDEGOA

1.ETA 2. PROBAK

A EREDUA

BEC, 2010-09-25

1 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA...

- 1a) Erregea eta erregina dira estatuburu.
- 1b) Erregea da estatuburu.
- 1c) Gobernuko presidentea da estatuburu.
- 1d) Estatuko gobernuia da estatuburu.

2 ESKUBIDEAK BABESTEKO MEKANISMO NAZIONAL GUZTIAK ALFERRIKAKOAK BADIRA, NAZIOARTEKO HONAKO INSTANTZIA HONETAN ESKA DAITEKE BABESA:

- 2a) Hagako Auzitegia.
- 2b) Nazioarteko Zigor Auzitegia.
- 2c) Giza Eskubideen Europako Auzitegia.
- 2d) EFTA.

3 KONSTITUZIO AUZITEGIA

- 3a) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren kontrolpeko organoa da.
- 3b) Auzitegi horretako magistratuen kargua biziartekoa da.
- 3c) Auzitegi horretako magistratuak Diputatuen Kongresuak aukeratzen ditu eta Ganberaren 3/5aren aldeko botoa lortu behar dute.
- 3d) Auzitegi horretako magistratuak Erregeak izendatzen ditu.

4 EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAK...

- 4a) Ez dauka hitzaurrerik.
- 4b) Hitzaurrea, atariko titulua eta lau titulu gehiago ditu.
- 4c) Zioen azalpena, hitzaurrea, atariko titulua eta hiru titulu gehiago ditu.
- 4d) Hitzaurrea eta sei titulu gehiago ditu.

5 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENAK...

- 5a) Estatutuaren I. tituluari jorratzen dira.
- 5b) Estatutuaren II. tituluari jorratzen dira.
- 5c) Estatutuaren III. tituluari jorratzen dira.
- 5d) Estatutuaren IV. tituluari jorratzen dira.

6 EUSKO LEGEBILTZARRA

- 6a) Hirurogeita hamabost legebiltzarkidek osatzen dute.
- 6b) Berrogeita hamar legebiltzarkidek osatzen dute.
- 6c) Laurogeita hamar legebiltzarkidek osatzen dute.
- 6d) Hirurogei legebiltzarkidek osatzen dute.

7 EZ DAGOKIO EUSKO LEGEBILTZARRARI...

- 7a) Autonomia-erkidegoko senatariak izendatzea.
- 7b) Legegintza-dekretuak egitea.
- 7c) Estatuko gobernuari lege-egitasmo bat onar dezan eskatzea.
- 7d) Konstituzionkontrakotasun-errekurtsoa aurkeztea Konstituzio Auzitegian.

8 ADIERAZI BAI EZTAPEN HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DEN ZUZENA:

- 8a) 1993. urtera arte, hiru ikastetxe sare zeuden: sare publikoa, pribatua eta ikastolen sarea.
- 8b) Ikastetxe publikoen lurralde-antolaketa eskola-barrutien bidez egiten da.
- 8c) Eskola-mapak eskola-plazen eskaintza zehazten du etapa eta modalitate guztietan.
- 8d) Ikastetxe publikoen antolamendu- eta funtzionamendu-araudiak, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak onartu eta aldatzen ditu.

9 IKASTETXE PUBLIKOETAKO ORDEZKARITZA-ORGANO GORENA

- 9a) Irakasleen klaustroa da.
- 9b) Eskola-kontseilua da.
- 9c) Zuzendaritza-taldea da.
- 9d) Ikastetxeko zuzendaria da.

10 IKASTETXEETAKO IKASKETA-BURUA HONAKO HONEK IZENDATZEN DU:

- 10a) Klaustroak.
- 10b) Zuzendaritza-taldeak.
- 10c) Eusko Jaurlaritzak.
- 10d) Ikastetxeko zuzendariak.

11 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALORREAN, EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK...

- 11a) Ez dira indarrean dagoen legerian biltzen, berdintasun-printzipioaren aurkakoak direlako.
- 11b) Alemanian garatu ziren lehenengoz.
- 11c) Talde jakin bati denbora jakin batez zuzendutako neurri zuzentzaileak dira.
- 11d) Frantzia garatu ziren lehenengoz.

12 EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO ORDEZKARITZA OREKATUA IZAN DADIN, EMAKUMEEK, GUTXIENEZ, HONAKO ORDEZKARITZA HAU IZANGO DUTE:

- 12a) Ehuneko berrogeita hamabost.
- 12b) Ehuneko hirurogei.
- 12c) Ehuneko berrogei.
- 12d) Ehuneko hogeita hamar.

13 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEA...

- 13a) 2007koa da eta estatu-legea da.
- 13b) 2005koa da eta estatu-legea da.
- 13c) 2007koa da eta autonomia-legea da.
- 13d) 2005koa da eta autonomia-legea da.

14 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEARI DAGOKIONEZ, GEZURRA DA...

- 14a) Administrazio bakoitzak gainerako Administrazioei interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetarako irispidea ematek salbuesten dituela administrazioak.
- 14b) Administrazioek euren zerbitzuak hiritarrari bere espedienteei buruzko informazioa emateko moduan antolatu behar dituztela ezartzen duela.
- 14c) Administrazio bakoitzak berarekin harremanetan jartzeko sinadura elektronikoko zer sistema onartzen dituen argitaratu behar duela ezartzen duela.
- 14d) Administrazioek pertsonen izapideak egiten laguntzeko prestatutako langileak izan behar dituztela ezartzen duela.

15 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI DAGOKIONEZ, EGIA DA...

- 15a) Herri-administrazio bakoitzean, hari zuzendutako era guztietako eskabideak, idatziak eta komunikazioak jasotzeko bi erregistro elektronikoko, gutxienez, izango direla.
- 15b) Herri-administrazioetan kexak eta iradokizunak jasotzeko bi postontzi egon beharko direla.
- 14c) Administrazioak euskarri elektronikoetan gorde behar dituela agiri elektronikoak, jatorrizko formatuan.
- 15d) Sarbide elektronikoaren alorrean, neutraltasun teknologikoaren printzipioa bete behar dela.

16 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAN BILDUTAKO PRINTZIO OROKORRETARIKO BAT DA...

- 16a) Eraginkortasun teknikoa.
- 16b) Kudeaketa eraginkorra.
- 16c) Irigarritasun teknologikoa.
- 16d) Herritarren bermeak oso-osorik gordetzea.

17 ZER DA ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEA?

- 17a) Administrazio-prozedura osatzen duten dokumentuen multzoa.
- 17b) Administrazio-erregistroan inskribatutako dokumentuen multzoa.
- 17c) Administrazio-artxiboan biltegitratutako dokumentuen multzoa.
- 17d) Herri-administrazio baten esku dauden dokumentuen multzoa.

18 PROZEDURA-ADMINISTRATIBOAN, NORK DU ERREFUSATZEKO ESKUBIDEA?

- 18a) Agintari publikoek.
- 18b) Herri-administrazioetako langileek.
- 18c) Funtzionarioek.
- 18d) Interesdunek.

19 ADMINISTRAZIO-ERREKURTSOA AURKEZTEN BADA, ZER GERTATZEN DA, ORO HAR, ERREKURRITUTAKO EGINTZAREN ERAGINKORTASUNAREKIN?

- 19a) Errekurtsoa jartzeak ez du eteten aurka egin zaion egintzaren eraginkortasuna.
- 19b) Errekurtsoa jartzeak aurka egin zaion egintzaren eraginkortasuna eteten du, gutxienez, hogeita hamar egunez.
- 19c) Errekurtsoa jartzeak aurka egin zaion egintzaren eraginkortasuna eteten du, eskumena duen organoak berariazko erabakia eman arte.
- 19d) Errekurtsoa jartzeak mugagabe eteten du aurka egin zaion egintzaren eraginkortasuna.

20 ZER SUPOSATZEN DU ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNA SORTZEAK?

- 20a) Zigor Kodean aurreikusitako zigorrak betetzeko betebeharra.
- 20b) Auzitegiek ezarritako diru-zigorrak ordaintzeko betebeharra.
- 20c) Auzitegiek ezarritako diziplina-zigorrak betetzeko betebeharra.
- 20d) Kaltetuei eragindako kalteak ordaintzeko betebeharra.

21 DATU PERTSONALAK BABESTEARI DAGOKIONEZ, NOR IZAN DAITEKE KALTETU EDO INTERESDUN?

- 21a) Jarduteko gaitasuna duen edonor.
- 21b) Pertsona juridikoak soilik.
- 21c) Pertsona fisikoak soilik.
- 21d) Edonor.

22 DATU PERTSONALAK TRATATZEKO INTERESDUNAREN ADOSTASUNA BEHAR DENEAN, NORI DAGOKIO ADOSTASUN HORI BADELA FROGATZEA?

- 22a) Interesdunari.
- 22b) Tratamenduaren eragileari.
- 22c) Fitxategiaren arduradunari.
- 22d) Datuak babesteko eskumeneko agentziari.

23 NOLA HARTZEN DA 15/1999 LEGE ORGANIKOAN (BDLO) "IZAERA PERTSONALEKO DATUAK KOMUNIKATU EDO LAGATZEA, HORI ONARTZEN DEN KASUETATIK KANPO"?

- 23a) Delitutzat.
- 23b) Arau-hauste oso larritzat.
- 23c) Arau-hauste larritzat.
- 23d) Arau-hauste arintzat.

24 ZEIN ESKUBIDEAK EMATEN DIO AUKERA TITULARRARI BERE DATUEN TRATAMENDUA SAIHESTEKO, BETIERE HORRETARAKO BIDEZKO ARRAZOIA BADAGO?

- 24a) Datuetan sartzeko eskubideak.
- 24b) Datuak zuzentzeko eskubideak.
- 24c) Datuak ezerezteko eskubideak.
- 24d) Datuei aurka egiteko eskubideak.

25 ALDI BATERAKO PROGRAMAK BETETZEN DIRA HONAKO HAUEN IZENDAPENETARAKO:

- 25a) Behin-behineko langileak.
- 25b) Bitarteko funtzionarioak.
- 25c) Zuzendari profesionalak.
- 25d) Lan-kontratuko langile finkoak.

26 FUNTZIONARIOEK LANALDI NORMALETIK KANPORA EMANDAKO ZERBITZUAK HONELA ORDAINTZEN DIRA:

- 26a) Produktibitate-osagarriaren bidez.
- 26b) Haborokinen bidez.
- 26c) Emandako zerbitzuari dagozkion kalte-ordainen bidez.
- 26d) Aparteko orduen bidez.

27 FUNTZIONARIO BATEN JOKAERA ARAU-HAUSTE LARRI EDO ARINTZAT JOTZEKO, HONAKO HAU IZAN BEHAR DA KONTUAN:

- 27a) Funtzionarioa berriz erori den.
- 27b) Funtzionarioak administrazio-karreran duen maila finkatua.
- 27c) Egindako egintzaren publikotasuna.
- 27d) Administrazioaren irudi publikoa kaltetu den.

28 HUTSEGITE OSO LARRIAK EDO LARRIAK EGITEAGATIK ZEHAPENA EZARRI AHAL IZATEKO...

- 28a) Aurretik herritar baten salaketa egon beharko da.
- 28b) Ezarritako prozedura jarraitu beharko da.
- 28c) Ezin du funtzionarioaren lehen egintza zigorgarria izan.
- 28d) Kriminaltasun-zantzu sendoak egon beharko dute.

29 FUNTZIONARIO BATEN SOLDATA...

- 29a) Bere kidegoko titulazio-taldeari dagokiona da.
- 29b) Funtzionarioaren titulazio-mailari dagokiona da.
- 29c) Funtzionarioaren maila finkatuari dagokiona da.
- 29d) Betetzen duen postuaren mailaren arabera lanpostu-mailaren osagarriari dagokiona da.

30 FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NORK ZEHAZTUKO DITU EUSKO JAURLARITZAKO LANPOSTUEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK?

- 30a) Kultura-sailburuak.
- 30b) Hizkuntza Politikako zuzendariak.
- 30c) Eusko Jaurlaritzak.
- 30d) Lanpostua atxikita dagoen zuzendaritzako zuzendariak.

31 HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK ETA, HALA BADAGOKIO, DERRIGORTASUN-DATAK...

- 31a) Lanpostuen zerrendan agertu behar dute.
- 31b) Aurrekontu-plantilletan agertu behar dute.
- 31c) Hizkuntza-eskakizunen erregistroetan agertu behar dute.
- 31d) Egitura Organikoko dekretuetan agertu behar dute.

32 OTSAILAREN 9KO 208/1996 ERREGE DEKRETUAK, ADMINISTRAZIOAREN INFORMAZIO ETA HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUENAK, ZEHAZTEN DU IZAPIDETZE-PROZEDUREN EGOERARI EDO EDUKIARI BURUZKO INFORMAZIOA...

- 32a) Informazio orokorra dela.
- 32b) Informazio partikularra dela.
- 32c) Prozedurako informazioa dela.
- 32d) Izapideko informazioa dela.

33 ADMINISTRAZIOAK EREDU NORMALIZATUAK ERABILTZEA...

- 33a) Ez da egokia.
- 33b) Informazio eta komunikazioko funtzioak oztopatzen ditu.
- 33c) Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa errazten du.
- 33d) Geroz eta ezohikoagoa da administrazio modernoetan.

34 OTSAILAREN 9KO 208/1996 ERREGE DEKRETUAREN, ADMINISTRAZIOAREN INFORMAZIO ETA HERRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUENAREN, ARABERA, HERRITARREN ARRETA HONAKO HAUEK BILTZEN DITU:

- 34a) Orientazioa eta informazioa.
- 34b) Kexak jasotzea.
- 34c) Administrazio-prozeduren inguruko kudeaketa.
- 34d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

35 KOMUNIKAZIO-PROZESUAN, IGORLEAK HELARAZI NAHI DUENAREN EDUKIA DA:

- 35a) Kodea.
- 35b) Mezua.
- 35c) Kanala.
- 35d) Zarata.

36 GALDERA BAT EGITEN DUEN HERRITARRARI ARRETA TELEFONO BIDEZ EMATEKO PROZESUAREN INGURUKO BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 36a) Arretaz entzun behar da galdera, etenaldirik gabe, eta arretaz entzuten ari garela erakutsi.
- 36b) Komeni da galdera guztiei monosilaboekin erantzutea, komunikazioa laguntzen baitute.
- 36c) Erantzuteko barne-kontsultaren bat egin behar bada, ohar bat idatzi eta herritarrari geroago deituko zaio.
- 36d) Komeni da galderaren laburpen bat egitea, arazoa ulertu dugula baieztatzeko.

- 37 MENDEKOAK UNE HORRETAN BERE LANPOSTUAN EZ DAGOEN LANKIDE BATI ZUZENDUTAKO DEI BATI ERANTZUN DIO. NOLA JARDUN BEHARKO LUKE?**
- 37a) Ez dagoela jakinarazi eta berriz deitzeko eskatu.
37b) Zergatik ez dagoen azaldu eta sentitzen duela esan.
37c) Ez dagoela jakinarazi eta zerbaitetan lagun diezaiokeen galdetu.
37d) Zergatik ez dagoen eta zenbat denbora daraman kanpoan adierazi.
- 38 JARRAIAN ADIERAZITAKO DOKUMENTUEN ARTEAN, ZEINEK EZ DU INFORMATZEKO HELBURUA?**
- 38a) Jakinarazpena.
38b) Liburuxka.
38c) Ebazpena.
38d) Ofizioa.
- 39 FORMALTASUN-MAILAREN ARABERA, IDATZIETAKO AGURRAK HONELA SAILKATZEN DIRA:**
- 39a) Formalak, protokoloak eta adiskidetsuak.
39b) Neutroak, adiskidetsuak eta formalak.
39c) Formalak, anbiguoak eta neutroak.
39d) Informalak, neutroak eta adiskidetsuak.
- 40 DATU, EKINTZA, ERABAKI EDO GERTAERAK EGIA DIRELA BAIEZTATZEN DUTEN DOKUMENTUAK...**
- 40a) Jakinarazpenak dira.
40b) Txostenak dira.
40c) Ofizioak dira.
40d) Ziurtagiriak dira.
- 41 SARBIDEAK KONTROLATZEKO SISTEMAK. WIEGAND TXARTELAK...**
- 41a) Infragorri bidezko txarteletan erabiltzen denarekin antz handia duen teknologia erabiltzen du.
41b) Mikrotxip bat du.
41c) Barra-kode bidezko txarteletan erabiltzen denarekin antz handia duen teknologia erabiltzen du.
41d) Txartel magnetikoetan erabiltzen denarekin antz handia duen teknologia erabiltzen du.
- 42 SARBIDE KONTROLA. MENDEKO LANGILEAK INSTALAZIOETAN BAIMENIK GABEKO PERTSONAK IKUSTEN BADITU...**
- 42a) Kanpora lagunduko die instalazioetatik irteten direla ziurtatzeko eta, egoki bada, eraikinaren administrazioaren arduradunari jakinaraziko dio.
42b) Pertsona horiek identifikatu, intzidentzia-liburuan idatzi eta egoki den epean eta moduan eraikinaren administrazioaren arduradunari jakinaraziko dio.
42c) Inmobilizatu edo irteteko aukerarik ematen ez dien gela batean sartu eta poliziarri jakinarazi beharko dio, eta, egoki bada, eraikinaren administrazioaren arduradunari.
42d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

43 ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA KANAL ANITZEKO IGORGAILU INFRAGORRIAK ALDI BEREKO ITZULPENEN TRESNAK DAUDEN GELETAN?

- 43a) Interpretateek aretoko parte-hartzeak entzun ahal izateko.
- 43b) Bertaratuek interpretateak entzuteko.
- 43c) Interpretateek aretoa ikusteko.
- 43d) Igorgailu infragorriak ezin dira areto nagusietan eta antzekoetan erabili.

44 ORO HAR, URA ETA EDONTZIAK JARRIKO DITUGU...

- 44a) Presidenteentzat, bilera guztietan.
- 44b) Prentsa-aretoetan eta areto nagusietan egindako ekitaldietara bertaratu direnentzat.
- 44c) Prentsa-aretoetan eta areto nagusietan egindako ekitaldietako hizlariarentzat.
- 44d) Bertaratuentzat, bilera guztietan.

45 NOIZ EGIAZTATU BEHARKO DIRA BILERA-GELA BATEKO BITARTEKO GEHIGARRIAK? (ERROTULADOREAK ETA BOLIGRAFOAK BADAUDEN, ONDO FUNTZIONATZEN DUTEN, FOLIO-KOPURUA ETA PAPELOGRAFOKO PAPER, ETAB.)

- 45a) Bileraren aurreko egunetan.
- 45b) Ez dago egiaztatatu beharrik, bertaratuek jakinaraziko baitigute zerbait falta bada.
- 45c) Bileraren egunetan bertan, bilera hasi aurretik.
- 45d) Egunero egiaztatatu beharko da hori bilera-gela guztietan, ez erabiliko direla aurreikusten direnetan soilik.

46 LASER FOTOKOPIAGAILUEN INPRIMAKETAN ERABILTZEN DEN PIGMENTUA...

- 46a) Dispersatzailea da.
- 46b) Finkatzailea da.
- 46c) Tonerra da.
- 46d) Tinta-kartutxoa da.

47 IRUDIA ESKANEATU ONDOREN, ZEIN FORMATUTAN GORDEKO DUGU AHALIK ETA KALITATE ONENA IZATEKO ETA MACINTOSHEKIN BATERAGARRIA IZATEKO?

- 47a) TIF.
- 47b) GIF.
- 47c) BMP.
- 47d) IPG.

48 WINDOWSEKIN ORDENAGAILU BIDEZ KARTELAK EGITEKO, KOMENI DA HONAKO HAU ERABILTZEA:

- 48a) Access.
- 48b) Excel.
- 48c) Paint.
- 48d) Wordart.

49 ADIERAZI FOTOKOPIAGAILUEN INGURUKO ZEIN BAIEZTAPEN EZ DEN EGIA:

- 49a) Fusorea fotokopiagailuaren elementua da.
- 49b) Fotokopiagailuek berotzeko denbora-tarte bat behar dute lanean hasteko.
- 49c) Egungo fotokopiagailuekin jatorrizkoen kopiak handitu edo txikiagotu egin daitezke.
- 49d) Kalibragailua fotokopiagailuaren elementua da.

50 HAUETATIK ZEIN EZ DA TELEGRAMA MODALITATE BAT?

- 50a) Online telegrama.
- 50b) Nazioarteko presako telegrama.
- 50c) Radiotelegrama.
- 50d) Burotelegrama.

51 UZTAILAREN 13KO 24/1998 LEGEAN, POSTA-ZERBITZU UNIBERTSALARI ETA POSTA-ZERBITZUEN LIBERALIZAZIOARI BURUZKOAN:

- 51a) Posta-zerbitzu unibertsala emateko baldintzak soilik ezartzen dira.
- 51b) Posta-zerbitzu unibertsalean erabili beharreko tarifak ezartzen dira.
- 51c) Posta-zerbitzu unibertsala emateko beharra egotzen zaio Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos sozietateari.
- 51d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

52 NOIZ HARTUKO DUGU POSTA-BIDALKETA BAT ZUZENKO PUBLIZITATETZAT?

- 52a) Iragarkiak, merkatu-azterketak edo publizitatea soilik dituen edozein komunikazioz osatuta dagoenean.
- 52b) Antzeko mezua bat duenean, jasotzaileei emandako izenak, helbideak eta identifikazio-zenbakiak desberdinak badira ere kasu bakoitzean.
- 52c) Hirurehun jasotzaile baino gehiagori igortzen zaionean.
- 52d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

53 ZEIN DA PRESAKO GUTUNAREN GEHIENENKO PISUA?

- 53a) 2 kg-ra arte.
- 53b) 300 g-ra arte.
- 53c) 350 g-ra arte.
- 53d) 500 g-ra arte.

54 GUTUNAZALAK TOLESTEKO MAKINEK...

- 54a) 30.000 orri tolestu ditzakete orduko.
- 54b) 20.000 gutunazal tolestu, gomatu eta itsatsi ditzakete orduko.
- 54c) 50.000 orri tolestu ditzakete orduko.
- 54d) 30.000 gutunazal tolestu, gomatu eta itsatsi ditzakete orduko.

55 SARRERAKO KORRESPONDENTZIA SAILKATZERAKOAN GUTUNEN BATEAN ERANSKINEN BAT FALTA DELA IKUSTEN BADA:

- 55a) Itzuli egingo da, eranskina jar dezaten.
- 55b) Beste talde batean sailkatuko da.
- 55c) Adierazi egin behar da eranskina falta dela, testuan ohartxo bat jarrita.
- 55d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

56 HAUETAKO ZEIN EZ DA BILTEGI BATEN HELBURUA?

- 56a) Merkantziak kalte, lapurreta edo suteen aurka babestea.
- 56b) Sarrerak eta irteerak zehatz kontrolatzea.
- 56c) Garraioaren inguruko logistika osoa izatea.
- 56d) Baimena duten pertsonen modu erraz, azkar eta seguruan sartzeko aukera izatea.

57 BILTEGI ERAGINKORRAK AUKERA EMATEN DU...

- 57a) Materialak atzerapenik gabe banatzeko.
- 57b) Eskatutako material guztiak banatzeko.
- 57c) Erosketak modu eraginkorrean kudeatzeko.
- 57d) Hiru aukerak zuzenak dira.

58 MATERIALAK BILTEGIRATZEKO SISTEMA HONAKO HONEN ARABERAKOA DA:

- 58a) Eskaeraren tamaina.
- 58b) Kontsumo-zentroekiko hurbiltasuna.
- 58c) Ekoizpen-zentroekiko hurbiltasuna.
- 58d) Biltegiaratu behar diren materialen mota eta neurriak, besteak beste.

59 INDUSTRIA-PRODUKTUAK ARRISKUTSUTZAT HARTUKO DIRA...

- 59a) Lehergaiak eta kaltegarriak badira soilik.
- 59b) Lehergaiak eta sukoiak badira soilik.
- 59c) Industria Sailaren 2001eko apirileko Araudia garatzen duten jarraibide teknikoek hala zehazten badute.
- 59d) Substantzia berrien jakinarazpenari eta substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzeari buruzko 1995eko martxoko Erregelamenduak jasotzen duen deskribaketaren arabera.

60 MERKANTZIA-INBENTARIOA ESATEN ZAIO...

- 60a) Kontuen egoeraren kontabilitateko balantzeari.
- 60b) Izakinen balioaren prozedura estatistikoari.
- 60c) Aktibo eta pasiboen arteko azken balantzeari.
- 60d) Biltegiko materialak egon badaudela egiaztatzeari.

61 BILTEGIRATZE-SISTEMETAN, KATALOGAZIOAK HONAKO HAUETARAKO AUKERA EMATEN DU:

- 61a) Biltegiratze-prozesua ondorengo banaketa eta merkaturatzearekin osatzea.
- 61b) Produktu bakoitzaren beharrezko informazioa zenbaki eta letren bidez ezagutzea.
- 61c) Merkantzien jatorria ezagutzea.
- 61d) Sorta bateko gai guztien ikuspegi orokorra ematea.

62 ALBARANAK HONAKO HAUEKIN LOTZEN DIRA:

- 62a) Merkantzien fitxategiekin, garraio-ondorioetarako.
- 62b) Merkantzien sarrera- eta irteera-prozesuekin.
- 62c) Kalitate-kontrolako prozesuekin.
- 62d) Salgaiaren biltegioko kokalekuarekin.

63 ZIRKULAZIOA BILTEGIETAN GARRANTZITSUA DA SEGURTASUNAREN IKUSPEGITIK. BEHIN-BEHINEKO BILTEGIRATZEREN BATEK ZIRKULAZIOA OZTOPATZEN BADU...

- 63a) Ohartarazteko argiak, banderak, zaintzaileak, hesiak eta abar jarri beharko dira.
- 63b) Egoera hori berariaz debekutzen du lan-arriskuen prebentzioari buruzko legeak.
- 63c) Berariaz eta pertsonalki jakinarazi beharko zaie material horiekin dabiltzan langileei.
- 63d) Oztopoa dagoen korridorerako sarbidea debekatuko da.

64 ESKUZKO TRANSPALETAK, ORO HAR, HONAKO KARGA HAUETARAKO DISEINATUTA DAUDE:

- 64a) 500 kg arteko kargak.
- 64b) 1.000 kg arteko kargak.
- 64c) 1.500 kg arteko kargak.
- 64d) 2.000 kg arteko kargak.

65 BILTEGI BATEKO MUGIMENDU BERTIKALETARAKO MAKINARIK OHIKOENAK...

- 65a) Transjasogailuak dira.
- 65b) Pilatzaileak dira.
- 65c) Arrabol-mahaiak dira.
- 65d) Karga-jasogailuak dira.

66 MUGIMENDU HORIZONTALLETARAKO PLATAFORMA-ORGEK...

- 66a) Pedal bidezko balazta izaten dute.
- 66b) Eskuzko balazta izaten dute.
- 66c) Eskuzko edo pedal bidezko balazta izaten dute.
- 66d) Maniobratzeko gurpilak izaten dituzte, balaztarekin edo balaztarik gabe.

67 ONTZIAK BILTZEKO ERABILTZEN DIREN EDUKIONTZIAK, ZEIN KOLORETAKOAK IZAN OHI DIRA?

- 6a) Urdinak.
- 678b) Berdeak.
- 67c) Horiak.
- 67d) Gehien erabili ohi den edukiontzia tapa berdeko edukiontzi marroia da.

68 METAL ASTUNAK DITUZTEN HONDAKINAK...

- 68a) Aparatu elektriko, elektroniko eta piletatik datoz.
- 68b) Aire girotuko makinen geletatik datoz.
- 68c) Administrazio-jardun orokorretik datoz.
- 68d) Ez da ohikoa bulegoetan hondakin horiek sortzerik.

69 ERABILITAKO LANDARE-OLIOA...

- 69a) Ez da hondakin kutsakortzat hartzen.
- 69b) Hondakin kutsakortzat hartzen da, baina erraz desegin daiteke.
- 69c) Hondakin kutsakortzat hartzen da eta zaila da desegiten.
- 69d) Lantegietan eta makina-geletan sortzen da nagusiki.

70 LANPARA FLUORESZENTEAK:

- 70a) Hondakin arriskutsuak dira.
- 70b) Edukiontzi berdeetan (beira) uzten dira.
- 70c) Biodegradagarriak ez diren olio mineralak dituzte.
- 70d) Edukiontzi urdinetan uzten dira.

71 PINTZA ELEKTRIKOAK ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA?

- 71a) Borne elektriko txikietan kableak sartu edo isolamendurik gabeko kableak arriskurik gabe heltzeko.
- 71b) Eraikinetako forjetako kableatuak kontaktu elektrikorik gabe eta, ondorioz, pertsonentzako hainbesteko arriskurik gabe zintzilikatzeke.
- 71c) Zirkuitu jakin bateko intentsitatea eta tentsioa neurtzeko.
- 71d) Kableak ebakitzeko.

72 NOLA DEITZEN ZAIO EGURREAN ZULO TXIKIAK EGITEKO ERABILTZEN DEN ERREMINTARI?

- 72a) Arraspa.
- 72b) Trintxa.
- 72c) Birabarkia.
- 72d) Lima.

- 73 ITURGINTZAN, INSTALAZIOKO HODIETATIK AIREA HUSTEA EDO EZABATZEA DEITZEN ZAIO...**
- 73a) Hustuketari.
 - 73b) Orekatzeari.
 - 73c) Purgatzeari.
 - 73d) Aireztatzeari.
- 74 ERREMINTA HAUETATIK ZEIN ERABILTZEN DA IGELTSEROTZAN?**
- 74a) Plaunkaia.
 - 74b) Giltza finkoa.
 - 74c) Fluxorea.
 - 74d) Hodi-ebakigailua.
- 75 ERAIKUNTZAKO KODE TEKNIKOAREN OINARRIZKO HELBURUA, SUTEEN AURKAKO BABESARI DAGOKIONEZ, HONAKO HAU DA:**
- 75a) Suterik gertatuko ez den eraikinak diseinatzea.
 - 75b) Suteak itzaltzeko bitarteko eraginkorrak dituzten eraikinak aurreikustea.
 - 75c) Eraikin bateko erabiltzaileek istripuzko sute baten eraginez kalteak jasateko arriskua murriztea, eraikin horren proiektuaren, eraikuntzaren, erabileraren eta mantentze-lanen ondorioz.
 - 75d) Suteak itzaltzeko, babesteko, sektorizatze eta eraikinak ebakutzeko bitartekoak koordinatzea.
- 76 SU-ITZALGAILU DEITZEN ZAIO...**
- 76a) Sute bat itzaltzen duen agenteari.
 - 76b) Mota horretako aparatu baten edukitzaileari.
 - 76c) Kanpoko agente bat duen aparatu autonomoari.
 - 76d) Suteak itzaltzeko sarera konektatuta horretarako erabiltzen den aparatuari.
- 77 SU-ITZALGAILUAK HONELA SAILKATZEN DIRA:**
- 77a) A, B, C eta D motako itzalgailuak.
 - 77b) Hainbat mota daude eta alfanumerikoki sailkatzen dira A-tik Z-ra.
 - 77c) A-tik Z-rako indizeekin eta 1etik 10erako azpiindizeekin sailkatzen dira.
 - 77d) EN marka erabiltzen da, aurretik homologazio-zenbakia eta hori ematen duen herrialdearen sinboloa dituela.
- 78 AZAROAREN 8KO 31/95 LEGEAK, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKOAK, BERE APLIKAZIO-EREMUAN:**
- 78a) Herri-administrazioak ez ditu barne hartzen.
 - 78b) Herri-administrazioak barne hartzen ditu.
 - 78c) Familia-etxeko zerbitzarien lan-harreman berezia duten pertsonak barne hartzen ditu.
 - 78d) Herri-administrazioak nahiz familia-etxeko zerbitzarien lan-harremana duten pertsonak ez ditu barne hartzen.

79 LANPOSTUETAKO ARRISKUEN HASIERAKO EBALUAZIOA...

- 79a) Azaroaren 8ko 31/95 Legeak enpresa pribatuari nahiz herri-administrazioei ezartzen dien betebeharra da.
- 79b) Langileen Estatutuak enpresa pribatuari ezartzen dion betebeharra da, baina ez herri-administrazioei.
- 79c) Langileen Estatutuak enpresa pribatuari nahiz herri-administrazioei ezartzen dien betebeharra da.
- 79d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

80 ENPRESAK EDO HERRI-ADMINISTRAZIOAK LAN-AGINTARITZAREN ESKU JARRI BEHAR DITU HONAKO AGIRI HAUEK:

- 80a) Lan-arriskuen ebaluazioak eta prebentzio-plana, besteak beste.
- 80b) Lanpostuetako arriskuen ebaluazioak soilik.
- 80c) Bere kargurako langileen historial medikoa, laneko gaixotasunak kontrolatzeko.
- 80d) Enpresa edo administrazioaren autobabeseko plana soilik.

81 ZENBAT KILO BAINO GEHIAGO PISATZEN DUEN KARGAK ERAGIN DITZAKE BIZKARRALDEAN ETA GERRIALDEAN KALTEAK, HAIK MANIPULATZEKO BALDINTZA ERGONOMIKOAK TXARRAK BADIRA?

- 81a) 2 kg-tik gorakoak.
- 81b) 3 kg-tik gorakoak.
- 81c) 25 kg-tik gorakoak.
- 81d) 10 kg-tik gorakoak.

82 487/1997 ERREGE DEKRETUAREN, KARGAK MANIPULATZEKO GUTXIENKO SEGURTASUN- ETA OSASUN-XEDAPENEI BURUZKOAREN, ARABERA, NORI DAGOKIO NEURRI TEKNIKOAK ETA ANTOLAKUNTZAKOAK HARTZEA?

- 82a) Segurtasun eta osasuneko batzordeari.
- 82b) Prebentzio-zerbitzuari.
- 82c) Enpresako medikuari.
- 82d) Enpresaburuari.

83 EMAKUMEEN KASUAN, EZ DA KOMENI PISU HAU BAINO GEHIAGOKO KARGAK MANIPULATZEA:

- 83a) 15 kg.
- 83b) 3 kg.
- 83c) 25 kg.
- 83d) 40 kg.

84 ○KARGAK MANIPULATZEARI DAGOKIONEZ, ZEIN BAIEZTAPEN EZ DA EGIA?

- 84a) Enpresaburuak bermatuko du langileek kargak manipulatzearen ondoriozko arriskuen inguruko prestakuntza eta informazio egokia dutela.
- 84b) Aireak behar bezala ez zirkulatzea kargak manipulatzeari lotutako laneko arrisku-faktorea da.
- 84c) Ez dira inoiz 25 kg-tik gorako kargak manipulatu.
- 84d) Kargak manipulatzeko, komeni da oinak bereiztea, zama jasotzeko jarrera egokia eta orekatua lortzeko.

85 AUTOBABESERAKO OINARRIZKO ARAUAK...

- 85a) Lanpostu baten arriskuen ebaluazioa nola egin behar den arautzen du xehetasunez.
- 85b) Autobabesa definitzen eta garatzen du, eta Administrazio publikoek kontrolerako zer mekanismo izango dituzten ezartzen du.
- 85c) Administrazio publikoen kontrol-mekanismoak soilik ezartzen ditu.
- 85d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

86 LARRIALDI-SIMULAZIOAK:

- 86a) Larrialdi-planaren ebaluazioa egitea eta haren eraginkortasuna handitzea dute helburu.
- 86b) Hilean behin egiten dira, gutxienez.
- 86c) Babes Zibileko agintaritzaren baimena behar dute.
- 86d) Langileen ordezkarien oniritzia izan behar dute.

87 ADIERAZI IDEIA HAUETATIK ZEIN EZ DEN LARRIALDI-PLAN BATEN HELBURU:

- 87a) Segurtasuneko araudia betetzen dela bermatzea.
- 87b) Larrialdiak eragin ditzaketan kausak ekiditea.
- 87c) Arrisku-egoera guztiak aurreikustea, aldizkako ebakuazio-simulaziorik ez egin behar izateko.
- 87d) Larrialdiko kanpo-zerbitzuekin elkarlanean jardutea.

88 LARRIALDIAK SAILKATZERAKOAN...

- 88a) Larrialdi txikia sektoreko alarmarekin bat dator.
- 88b) Larrialdi txikia alarma orokorrarekin bat dator.
- 88c) Larrialdi txikiak sektoreko alarma nahiz alarma orokorra abiarazten ditu.
- 88d) Larrialdi txikiak alarma mugatua sortzen du.

89 EDONOLAKO ISTRIPU BATEN AURREAN, LEHEN LAGUNTZETAN EGIN BEHARREKO LEHENENGO GAUZA HONAKO HAU DA:

- 89a) Odoljariora eten.
- 89b) Zaurituak lasaitu.
- 89c) Gertaeren lekua babestu.
- 89d) 112ra deitu.

90 HEMORRAGIARIK BADA, TORNIKETEA...

- 90a) Aparteko eta muturreko neurria da.
- 90b) Hartu beharreko lehen neurria da.
- 90c) Arteriaren konpresioarekin batera egin behar da.
- 90d) Ez da inoiz egin behar, gangrena sortzeko arriskua baitago.

91 ONDORENGO JARDUEREN ARTEAN, ZEIN DA ERREDURETARAKO EGOKIENA?

- 91a) Edateko ematea, erredurak jasan dituenaren hidratazioa laguntzeko.
- 91b) Arropa kentzea, erretako gorputzeko zatia urarekin garbitzeko.
- 91c) Erretako eremua urez hoztea.
- 91d) Erreduraren gainean hortzetako pasta aplikatzea.

92 ISTRIPUA JASAN DUENAREN LEHEN BALORAZIOAN, NOLA JARDUN BEHAR DA?

- 92a) Lehenik, odoljariorik ez duela egiaztatu; ondoren, pultsurik baduen, eta, hirugarren, arnasa hartzen duen.
- 92b) Lehenik, konortea aztertu; ondoren, arnasa hartzen duen, eta, hirugarren, pultsurik baduen.
- 92c) Lehenik, pultsurik baduen aztertu; ondoren, arnasa hartzen duen eta, hirugarren, odoljariorik baduen.
- 92d) Lehenik, konortea aztertu; ondoren, pultsurik baduen, eta, hirugarren, arnasa hartzen duen.

93 GAUR EGUN, HERRIALDE GARATU GEHIENETAN, HERIOTZA ERAGITEN DUEN LEHEN ARRAZIOA DA ZIRKULAZIO-ISTRIPUENA:

- 93a) 16 eta 25 urte bitarteko gazteen artean.
- 93b) 30 eta 40 urte bitarteko pertsonen artean.
- 93c) 55 urtetik gorako pertsonen artean.
- 93d) 40 eta 50 urte bitarteko pertsonen artean.

94 ISTRIPU BAT GERTATZEKO AUKERAK AREAGOTZEN DITUEN ELEMENTU, FENOMENO, BALDINTZA, EGOERA EDO GIZA EKINTZA ORO:

- 94a) Kuasi-istripua da.
- 94b) Arrisku-faktorea da.
- 94c) Jazoera da.
- 94d) Intzidentea da.

95 GIDARIEK BIDEAREN GAINERAKO ERABILTZAIILEEN JOKABIDEAK AURREIKUSI BEHAR DITUZTE, KALTERIK GERTA EZ DADIN, ETA, ONDORIOZ, BEREN BURUAK ETA GAINERAKO PERTSONAK BABESTEKO JOKABIDEA IZAN BEHAR DUTELA DIOEN PRINTZIPIOA:

- 95a) Zirkulazio gidatuaren printzipioa da.
- 95b) Arduraren printzipioa da.
- 95c) Gorputz-segurtasunaren printzipioa da.
- 95d) Segurtasun- edo babes-printzipioa da.

ERRESERBAKO GALDERAK

96 IKASTETXE PUBLIKO BATEAN, EZ DA ESKOLA-KONTSEILUKO KIDE:

- 96a) Ikastetxeko idazkaria, ez baitu botorik.
- 96b) Hezkuntzako ikuskaria.
- 96c) Dagokion zinegotzia.
- 96d) Horietatik guztietatik bakar bat ere ez da eskola-kontseiluko kide.

97 ZER DA ERREGELAMENDU BAT?

- 97a) Lege mota bat.
- 97b) Arau juridiko mota bat.
- 97c) Administrazio-kontratu mota bat.
- 97d) Administrazio-egintza mota bat.

98 KONSTITUZIOAN BILDUTAKO ESKUBIDE HAUETARIKO ZEIN DA FUNTSEZKO ESKUBIDEA?

- 98a) Administrazioarekiko harremanetan hizkuntza koofizialak erabiltzeko eskubidea.
- 98b) Administrazio-dokumentuak eskuragarri izateko eskubidea.
- 98c) Datu pertsonalak babesteko eskubidea.
- 98d) Administrazioarekin baliabide elektronikoen bidez harremanetan jartzeko eskubidea.

99 HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKO BATERATUAK ZENBAIT MAILA BILTZEN DITU?

- 99a) 3.
- 99b) 4.
- 99c) 5.
- 99d) 6.

100 SARBIDE KONTROLA. SEGURTASUN-ERRONDETAN SEGURTASUN-ZAINTZA BEREZIA BEHAR DUTEN EREMUAK DIRA:

- 100a) Zuzendariaren eta goi-kargudunaren bulegoa.
- 100b) Makina-gelak.
- 100c) Zuzendariaren eta goi-kargudunaren bulegoak nahiz makina-gelak.
- 100d) Aurreko eremu bakar batek ere ez du zaintza berezirik behar.

101 GUTUN ZIURTATU BATEN GEHIENEZKO NEURRIAK HONAKO HAUEK DIRA:

- 101a) Biribilkia/tutua: Luzera + bi aldiz diametroa = 106 cm, eta neurririk handiena ez da 90 cm baino gehiagokoa izango.
- 101b) Gutun-azala edo kutxa: Luzera + Altuera + Zabalera = 90 cm, eta neurririk handiena ez da 60cm baino gehiagokoa izango.
- 101c) Biribilkia/tutua: Luzera + bi aldiz diametroa = 104 cm, eta neurririk handiena ez da 80 cm baino gehiagokoa izango.
- 101d) Gutun-azala edo kutxa: Luzera + Altuera + Zabalera = 90 cm, eta neurririk handiena ez da 80cm baino gehiagokoa izango.

102 MATERIAL ARRISKUTSUAK BILTEGIRATZEA

- 102a) Herriguneetatik aldentutako industriguneetan eta segurtasun-pabilioietan biltegiratuko dira.
- 102b) Dagokion autonomia-erkidegoko larrialdietako lurralde-zuzendaritzen jarraibideen arabera biltegiratuko dira.
- 102c) Alor horretako araudiaren eta egoki diren jarraibide teknikoaren arabera biltegiratuko dira.
- 102d) Larrialdi-planean bildu eta jendaurrean jarriko da.

103 ADMINISTRAZIOKO LANEAN, SORTZEN DEN “ZABOR-POLTSAN” GEHIEN-GEHIENA...

- 103a) Materia organikoa da.
- 103b) Papera eta kartoia da.
- 103c) Ontzi arinak eta plastikoak dira.
- 103d) Informatikako hondakinak bezalako administrazio-hondakineko produktuak dira.

104 KAXA-SARRAILA DEITZEN ZAIO...

- 104a) Ate baten oholari erantsita dagoen sarraila, atearen ertzetako batean landatu gabeari.
- 104b) Orri mugikorrean sarraila sartzeko egiten den zuloari.
- 104c) Sarraila baten zilindroko artekari, giltza sartzeko eta gidatzeko.
- 104d) Ate bat irekitzeko edo ixteko heldulekuari.

105 ERREDURAREN LARRITASUNA NEURTZEKO HONAKO HAU HARTZEN DA KONTUAN:

- 105a) Erreduraren hedadura.
- 105b) Zauriaren sakonera.
- 105c) Erredurak dituen pertsonaren adina.
- 105d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

2. PROBA

ERANTZUN-ORRIKO 151. LAUKITXOAN HASI BEHAR DUZU ERANTZUTEN

151 EUSKO JAURLARITZAREN ORDEZKARITZA BATEKO ORDENANTZA DATU PERTSONALAK ZUZENTZEKO ESKUBIDEAZ BALIATU NAHI DUEN PERTSONA BATEKIN DAGO. ZEIN DA JARDUNBIDE EGOKIENA?

- 151a) Zuzendu nahi dituen datuak idatzi.
- 151b) Eskatera-idatzia aurkezteko esan eta, gehienez, 15 eguneko epean ebatziko dela adierazi.
- 151c) Eskatera bete eta, horrekin batera, eskatzen dena justifikatzeko agiriak aurkeztu behar dituela adierazi.
- 151d) Datuak Babesteko Euskal Bulegora igorri, hori baita datu pertsonalak zuzentzeko prozedura izapidetu dezakeen bakarra.

152 EUSKO JAURLARITZAKO MENDEKO BATEK EUSKO JAURLARITZAREN LEHIAKETA-OPOSIZIO BATEAN PARTE HARTUKO DU, ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOAN SARTZEKO. BERE EGUNGO LANPOSTUAREN FUNTZIOEN ARTEAN, EUSKO JAURLARITZAK DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUETAKO AZTERKETETAKO GALDERAK FOTOKOPIATU ETA KOADERNATZEA DAGO. NOLA JARDUN BEHAR DU?

- 152a) Ezin du funtzio horiek betetzen hasi prozedurako interesdunek errekusatzeko epea amaitu eta errekusazio-eskaeraren bat aurkeztu ez dela egiaztatu arte.
- 152b) Fotokopiak egin behar ditu, zeregin hori betetzeak ez duelako esan nahi dokumentuak irakurri direnik, langile publiko orok isilean mantentzeko betebeharra duela kontuan izanda.
- 152c) Aitortu behar du prozeduran interesduna dela eta aipatutako funtzioak betetzeari uko egiten diola.
- 152d) Funtzioak bete beharko ditu, nahiz eta alde zuzenetik, bere goragoko karguari diligentzia bat aurkeztu beharko dion bere egoera adierazteko, administrazio-gardentasunaren printzipioa betez.

1.KASUA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE BATEK KORRESPONDENTZIA UGARI DU ETA FRANKEATZEKO MAKINEN SISTEMA ERABILTZEN DU BERE BIDALKETETARAKO.

153 ZER DA KORRESPONDENTZIA FRANKEATZEA?

- 153a) Gutun-azalak automatikoki itxi, gomatu eta itsastea bidaltzeko.
- 153b) Posta-zerbitzuak ordaintzea da, bidalketaren ezaugarrien arabera tarifa ordainduta.
- 153c) Gutun-azaletan edo paketeetan zigituak itsastea, hori baita nazio-lurralde osoan onartzen den frankeatzeko sistema ofizial bakarra.
- 153d) Posta-bidalketak banatu, hartu eta baieztatzeko sistema da.

154 BESTE ZEIN FRANKEO-SISTEMA DIRA BALIZKOAK?

- 154a) Aurreordainketa.
- 154b) Helmugan frankeatzea.
- 154c) Frankeoko zigilu-markak.
- 154d) Frankeatzeko hiru sistemak baliozkoak dira.

155 ZER ABANTAILA ESKAINTZEN DU FRANKEATZEKO MAKINAK ERABILTZEAK?

- 155a) Tarifak baxuagoak dira.
- 155b) Frankeoa kontrolatzen da.
- 155c) Bidalketak azkarrago banatu eta entregatzen dira.
- 155d) Aukera guztiak zuzenak dira.

156 FRANKEATZEKO MAKINA AUTOMATIKOAK ERABILTZEAK ENPRESARI BETEBEHAR BATZUK ERAGITEN DIZKIO:

- 156a) Erabiltzaileak bidalketa handiak frankeatu behar ditu errentagarria izan dadin.
- 156b) Posta-zerbitzuak baimena eman behar du horretarako.
- 156c) Tarifarik merkeenetarako soilik erabili ahal izango dira.
- 156d) Erabiltzaileak hitzarmen bat sinatu beharko du posta-zerbitzuarekin.

157 NAZIOARTEKO PRESAKO POSTA-ZERBITZUA ERABILI BEHARKO BALITZ, ZEIN TAMAINA IZAN BEHARKO LUKETE AURREZ ORDAINDUTAKO GUTUN-AZAL TXIKIEK?

- 157a) 275 x 347 mm, 500 gramora arteko edukiarekin.
- 157b) 185 x 250 mm, 500 gramora arteko edukiarekin.
- 157c) 185 x 250 mm, 200 gramora arteko edukiarekin.
- 157d) 275 x 347 mm, 200 gramora arteko edukiarekin.

158 ERAKUNDE BATEK ORDAINKETA GERORATUKO FRANKEOA ERABILTZEA ERABAKITZEN BADU, ZEIN ORDAINKETA-MODU ERABILI AHAL IZANGO DU?

- 158a) Aurreordainketa.
- 158b) Frankeo zuzena.
- 158c) Helmugan frankeatzea.
- 158d) Frankeo itundua.

159 OBJEKTUAREN NEURRIA DELA ETA, EZIN BADA ZUZENENKO ESTANPATZERIK EDO INPRIMATZERIK EGIN, ETIKETA EDO ZINTA BAT ERABILI AHAL IZANGO DA HORRETARAKO; HOR INPRIMATUKO DIRA:

- 159a) Igorlearen eta jasotzailearen izena eta helbidea.
- 159b) Jasotzailearen izena eta helbidea.
- 159c) Igorlearen izena eta helbidea.
- 159d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

- 160 LAU EROALEKO INSTALAZIO ELEKTRIKO TRIFASIKO BATEKO TENTSIO NOMINALA ZUZENA DEN ADIERAZI BEHAR DUGU. ZUZENA IZANGO DA VOLTMETROAK HONAKO HAU ADIERAZTEN BADU:**
- 160a) 230 V fase eta neutro artean eta 400 V faseen artean.
160b) 400 V fase eta neutro artean eta 230 V faseen artean.
160c) 400 V faseen artean eta 0 V fase artean eta neutroarekin.
160d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 161 KORRONTE ALTERNOKO SARE ELEKTRIKO BATEN MAIZTASUNA UNITATE HONETAN NEURTZEN DA:**
- 161a) Mx (Maxwellak).
161b) A (Ampereak).
161c) Hz (Hertzak).
161d) W (Wattak).
- 162 JAKINARAZI DIGUTE MATXURA IZAN DUELA BANAKETA-SAREKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAREN "HARTUNEAK". NOREN ERANTZUKIZUNA DA?**
- 162a) Jabegoaren mantenu-zerbitzuarena.
162b) Enpresa hornitzailearena.
162c) Enpresa komertzialarena.
162d) Autonomia-erkidegoko presidentearena.
- 163 SUTE-AHO BAT ERABILTZEARI DAGOKIONEZ, ONDORENGO EKINTZETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?**
- 163a) Armairuaren atea ireki edo kristala haustea, modeloaren arabera.
163b) Ura ixteko giltza irekitzea.
163c) Mahuka desbiribilkatzea.
163d) Lantza pitari eutsi eta ur-zorrotada suaren ingurura zuzentzea.
- 164 SUTEEN AURKA BABESTEKO INSTALAZIOEN ARAUDIAK INSTALAZIOKO ERABILTZAILEAREN EDO TITULARRAREN LANGILEEK EGIN DITZAKETEN ERAGIKETAK BEREIZTEN DITU. ONDORENGOETATIK ZEIN EZ DA MOTA HORRETA KOA:**
- 164a) SUHHak (suteetako ur-hartune hornituak) eskuragarri eta ondo seinaleztatuta dauden egiaztatu.
164b) Sute-ahoak estankoak diren ikuskatu.
164c) Su-itxalgailuen pisua eta presioa egiaztatu, behar denean.
164d) Suteak detektatzeko eta alarma jotzeko sistema automatikoen tentsioak eta intentsitateak doitu.

- 165 GAILU ELEKTRIKO BATEN SUTEAREN KASUAN, LEHENTASUNEZ, HONAKO HAUEK ERABILIKO DIRA:**
- 165a) Ur presurizatuko itzalgailuak.
 - 165b) Gas karbonikoko edo karbono-dioxidoko itzalgailuak.
 - 165c) R22 itzalgailuak.
 - 165d) Itzalgailu isolatzaileak.
- 166 BILTEGIAN KARGA BAT PRESTATU BEHAR DA NAZIOARTEKO GARRAIORAKO. TAMAINA NORMALIZATUKO PALETEN BITARTEZ EGITEKO ESKATU DUTE. HAINBAT AUKERA DAUDE, BAINA, ORO HAR, NEURRI HONETAKOAK AUKERATUKO DITUGU:**
- 166a) 1000 mm x 1000 mm.
 - 166b) 600 mm x 1000 mm.
 - 166c) 600 mm x 800 mm.
 - 166d) 800 mm x 1200 mm.
- 167 MERKANTZIA BILTEGIAN JASO DA ETA EZ DA AGERI SISTEMAN ERREGISTRATZEKO BEHARREZKO INFORMAZIOA. HONELA JARDUNGO GARA:**
- 167a) Merkantzia zain egoteko gunean eduki, harreran bertan.
 - 167b) Merkantziari enbalajea kendu eta gero sisteman erregistratzeko prestatu.
 - 167c) Merkantzia itzuli, erregistratu ahal izateko informazio egoki eta osoarekin entrega dezaten.
 - 167d) Ez da harreran utzi behar. Irteeratik gertueneko gunean utziko da behin-behinekoz.
- 168 HAINBAT MATERIAL MOTARAKO KODIFIKAZIO ALFANUMERIKO BAT SORTZEKO ESKATZEN BADIGUTE, HONAKO IRIZPIDE HONEK IZANGO DU LEHENTASUNA:**
- 168a) Letrek material-mota eta mota horretan dagokion taldea adierazten dute, eta zenbakiak gai-kodea.
 - 168b) Letrek gai-kodea adierazten dute eta zenbakiak material-mota.
 - 168c) Letra eta zenbakiak gai-kodea adierazten dute, eta zenbakiak material-mota eta mota horretan dagokion taldea.
 - 168d) Ez du garrantzirik, baina homogeneous izan behar du sarrera eta irteeratarako hautatutako kodifikazioak.
- 169 KARGA JARIAKORRA DUTEN BARRIL ZIRKULAR BATZUK JASO DIRA, BAINA ESPAZIO-ARAZOENGATIK EZ DIRA MAILA BEREAN KABITZEN. ZER EGIN BEHAR DA?**
- 169a) Horizontalean eta hiruak pilatu altueran, mugitzeko arriskurik izan ez dezaten.
 - 169b) Debekatua dago mugitu edo isurtzeko arriskua duten jariakinez betetako ontziak altueran pilatzea maila bat baino gehiagotan.
 - 169c) Zutik pilatuko dira, tapoia gora begira dutela, eta egurrezko oholak jarrita altuerako ilaretarako, babestu eta eusteko.
 - 169d) b eta c aukerak zuzenak dira eta erabili daitezke, arduradunak baimena ematen badu.

170 ZAKUAK ESKUZ MUGITZEARI DAGOKIONEZ...

- 170a) Ziurtatzeko eta ixteko sistemari erreparatu behar diogu, mugitu aurretik. Gutxieneko normalizatua 10 kilopond izango da.
- 170b) Gutxieneko normalizatua 15 kilopond da, askatasunez mugitzeko aukera ematen baitu.
- 170c) Ez dago kopuru normalizaturik, beraz, beti paletetan pilatu eta transpaletekin mugitu behar dira.
- 170d) Ez dira modu baldarrean erabili edo bota behar.

171 ATE BATI BISAGRAK JARRI BEHAR DIZKIOGU. ORDENA HAU JARRAITUKO DUGU:

- 171a) Bisagrak atean jarri eta gero markora egokitu.
- 171b) Bisagrak atean non jarri nahi ditugun finkatu eta markoan markatu. Bisagrak markoan jarri eta gero atera egokitu.
- 171c) Goiko bisagrarekin hasi, lehenengo markoan jarri eta gero atean.
